

4. Teknologia bakoitzeko serieak

Bi teknologien barnean zenbait serie daude. Haien ezaugarriak azpiatal hauetan azaltzen dira.

4.1. TTL serieak

74HC (High speed): TTL estandarra baino arinagoa da. Kapazitate parasitoen denbora-karga konstanteak txikitzean datza, eta potentziaren disipazioa handiagoa da.

74L (Low power): Kontsumoa txikiagoa da, baina geldoagoak dira.

74S (Schottky): Abiadura handikoak. Transistoreak ez dira erabat asetzen. Schottky diodoak erabiltzen dira.

74LS (Low power Schottky): Potentziaren disipazioa txikia da, eta abiadura estandarren antzekoa da.

74AS (Schottky aurreratua): Arinena da.

74ALD (Kontsumo txikiko Schottky aurreratua): 74AS-tik dator. Kontsumo txikia eta abiadura handia ditu ezaugarriak.

74F (Fast): Kontsumo txikia eta abiadura handia daukate.

4.2. CMOS Serieak

4000: CMOS estandarra. Egoera egonkorrean ez du kontsumitzen, eta egoera dinamikoan, ordea, maiztasunaren arabera kontsumoa du.

HE4000B: Philips etxeak garatutako seriea da. Gainazal-integrazioa txikitu da, eta ezaugarriak hobetu dira. Estandarrak baino abiadura handiagoa dauka.

74C: Estandarra hobetzen duen seriea. Funtzioak eta hankatxoak TTL-ko 74 seriearen baliokideak dira.

74HC/HCT: Abiadura handia eta ezaugarriak oso hobetuak dituen seriea da. TTL maila logikoekin baliokidetasuna dauka.

ACL (Lógica CMOS aurreratua): Abiadura handia eta kontsumo txikia dira bereizgarriak.